

Guraso iruindarren odisea

Iruñeko Udalak 18 haur eskola ditu, eta bi baino ez euskaraz. Euskarazko eskaintza halako hiru da eskaria. 1.399 plazatik 164 dira euskaraz eta datorren ikasturtean guraso iruindarrek 466 haur euskarazkoan matrikulatuko lituzkete. Gurasoek eta haurrek mila ekilibrio egin behar dituzte euskarazko heziketa jasotzeko.

Testua eta argazkiak:

| EIDER MADINA BERASATEGI |

GOIZEAN GOIZ JAIKI eta autoz eramane ohi dute egunero hamar hila-beteko txikia haur eskolara. Bitartean, haien ondoko atarrietan bizi diren haurrak oinez doaz etxe pareko zentrora. Ipuinaren hasiera dirudiena eguneroko gordina da Iruñeko hainbat ume eta gurasorentzat.

Araia

Alaba Araia txiki-txikitatik euskaraz heztea hautatu zuten Ainhoa Irigibel eta Xabi Terrorsek. Ongi zekiten erabaki horrek eskatzen duen ahalegina, izan ere Iruñea osoan dauden euskarazko bi haur eskola publikoak –Egunsenti eta Izartegi– beste auzo batean kokatzen dira, Txantrean hain justu. Irigibelen esanetan, “garrantzi handia ematen diogu euskaraz bizitzeari, eta gertutasunaren gainetik hizkuntza lehenetsi genuen erabaki hori hartzerakoan”.

Arrotxapean bizi, Sanduzelain lan egin eta Txantreara eramaten dute Araia hamar hilabete zituenetik. Denbora kudeatzeko ahalegin berezia egiten dutela aitortu dute, “ordutegiak egokitzeo *tetrisak* egin behar izaten ditugu sarri. Gainera, eguraldi kaskarrak, haurra gaixotzeak edo edozein ezustekok eguneroko plangintza aztoratzen digu”, dio amak.

Ekonomikoki gastu handia eskatzen du txikia beste auzo batera eramane behar izateak. Batetik, egunero autoz egiten dutelako joan-etorria; eta bestetik, Araiak haur eskolan egun erdia eman

arren osoa egonen balitz bezala ordaintzen dutelako. “Etxe ondoko haur eskolara egun erdiz eramane bagenu 175 euro ordainduko genituzke hilean, baina euskarazko ereduari jardunaldi osoko eskaintza besterik ez dagoenez 306 euro ordaintzen ditugu”.

Halere, horrela moldatu daitezkeen bitartean aurrera jarraitzeko asmoa agertu du Irigibelek, “gure ustez merezi du ahaleginak, defendatzen eta sinesten dugun euskarazko kalitatezko heziketa jasotzen ari delako gure alaba”.

Irigibel-Terrorstarrek Arrotxapean bizi, Sanduzelain lan egin eta Txantreara eramaten dute Araia hamar hilabete zituenetik

Ainhoa eta Adei

Alde Zaharrean bizi dira Unai Abanzabalegi eta Karmen Irigoien haien seme-alaba Adei eta Ainhoarekin. Etxetik 50 metrora haur eskola izan arren, euskararen aldeko hautua eginez Izartegira eramaten hasi ziren alaba zazpi hilabeterekin. “Autoz edo autobusez eramane genuen egunero, baina ikasturte bat besterik ez genuen egin horrela, semea jaio zen arte, hain zuzen”, gogoratu du aitak.

Bigarrenaren etorrerarekin egoera korapilatu zitzaian, bateraezina zelako zaharrena etxe ondoko ikastetxean utzi eta gazteena Txantrean eramatea. Hortaz, etxe ondoko haur eskolan hasi behar izan zuen Adeik gaztelaniazko ereduari: “Pena handia eman zigun, baina hori zen zentzuzkoena; oso zaila zitzaigun erritmo hura jarraitzea eta praktikotasuna hobetsi genuen”, dio Abanzabalegik. Orain, Alde Zaharreko ikastetxean dabil Ainhoa D ereduari eta hara eramane dute Adei datorren urtean.

Ekai eta Maddi

Semea eta alaba koskortuta dituzte Oihana Huerta eta Koldo Morrasek. Ekaik 9 urte ditu eta Maddik 6, baina gogoan dute haur eskolan ibili zireneko garaia, lehen pertsonan bizi izan baitzuten euskarazko ereduari hautatu izanak dakarren zama.

Arrosadia auzoan bizi eta hiriko beste puntako bi haur eskoletan egin zuten semearen aurrematrikula. Ez zuten plazarik lortu eta Mendabaldea auzoko Iruña Txiki haur eskola pribatura eramane behar izan zuten. Gazteenarekin aldez, Egunsentin egokitu zitzaian plaza eta “bi urte zoro eta gogor” gisa oroitzen du amak etapa hura: “Lanera sartu baino ordubete lehenago ateratzen ginen etxetik zaharrena etxe ondoko eskolan utzi eta gazteena haurtzaindegira eramateko”.

Asteazkenetan ordu berean jaso behar izaten zituzten bi haurrak eta



Ainhoa Irigibel, Araia besoetan duela. Eskuinean, Adei eta Ainhoa, Unai Abanzabalegi eta Karmen Irigoien gurasoekin. Adei txikia gaztelaniaz ari den haur eskolan dabil auzoan, gurasoek Txantrea eramateko modurik ez dutelako.

“haur eskolako hezitzaileen borondate onari esker” moldatzen zirela azpimarratu du Oihana Huertak. “Ongi ezagutzen dute guraso askoren egoera eta asko inplikatzeko dira ahalegin horretan”, berretsi du.

Haur eskola euskaldunen plataforman ibili zen denboraldi batez Huerta; eta “Udalaren aitzakia merkeak eta jarrera zurruna” salatu ditu. Izan ere, haien auzoan aurretik haur eskola izandako eraikin hutsean D ereduko zerbitzua jartzeko eskaeraren aurrean “eraikina zaharra zela eta hori euskaldunak diskriminatzea litzatekeela” erantzun zieten.

“Agintean daudenek oztopoak besterik ez dituzte jartzen eta hainbat desenkusa erabili izan dute hiritarren eskariei muzin egiteko. Gaur egun, finantza krisia eta aurrekontu falta da agintarien argudio nagusia”, azaldu du Arrosadiako amak.

Aspaldiko afera

Euskarazko haur eskolen aldarrikapena antzinatek dator. Hainbat saiakera egon den arren, azken bi hamarkadetan ez da euskarazko haur eskolarik zabaldu Iruñean. Lorpen gisa, 1995ean guraso talde batek Udalak Izartegi haur eskola itxeko asmoa gelditu izana da aipagarriena.

Urte horietan guztietan, kanpaina eta mobilizazio anitz eraman

dira aurrera. Auzo auzoko taldeez gain, 2007an Iruñeko dinamika orokorra batzen duen “Haur eskolak euskaraz” plataforma sortu zuten hainbat guraso eta hezitzailek.

“Argi ikusten da herritarren alde tik borondatea badagoela. Urtez urte jende asko inplikatu da aldarri horretan. Aurrematrikula garaian azaleratzen da arazoa urtero eta ziklikoki indar handia hartu izan du”, dio Irigibelek.

Eskaera errealean datu bilketa

Udalak euskarazko eskaera gabezia argudiatu izan du D ereduko haur eskolarik ez zabaltzeko. Horren aurrean, guraso elkarteek behin eta berriz eskatu dute matrikulazio inprimakian haurra zein auzo eta eredutara eraman nahi duten galde tzea, benetako eskaerari ahalik eta erantzun egokiena emateko. Orain arte ez da halakorik lortu eta aurten herritarrek beraiek abiatu dute datu bilketa.

Aurrematrikulak iraun duen 15 egunetan egin da galdeketa *Geu ere kontuan hartzeakoak gara* lelopean. Euskalgintzako eragileek, hainbat sindikatuk eta Sasoa jubilatuen elkarteak txandak egin dituzte haien haurrak D ereduan matrikulatu nahi luketen gurasoen eskaera erreala jasotzeko.

Eskaria badagoela ikusarazi eta UPN gezurretan ari dela salatu nahi dute horrekin, “arazoa mahai gainean jarri eta politikoei ardurak eskatzeko”, jakinarazi du Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko kide Maite Indak.

Eskariaren eta eskaintzaren arteko desoreka

Jakina da euskarazko eskaintza eskaria baino askoz ere urriagoa dela; 3 urtetik gorako eskoletan D ereduan dabilzaten kopuruak ikusi besterik ez dago horretaz ohartzeko. Halere, arestian aipatu bezala, Iruñea osoan euskarazko bi haur eskola besterik ez daude, biak bata bestearen ondoan. Indak ohartarazi duenez, “guraso gehienek gertutasun irizpideen baitan aukeratzen dute haur eskola. Udalak ongi daki hori eta horretaz baliatzen da euskaldunoi oztopoak jartzeko”.

Bien bitartean, gaztelaniazko eta ingelesezko jarduerak eskaintzen dituzten lau haur eskola daude hiriko hainbat gunetan banatuta; eta gainerako 12ek gaztelaniazko zerbitzua eskaintzen dute soilik. Orotara, urtean Iruñea osoko 28 umek baino ez dute lortzen udal haur eskoletan euskaraz ikasteko aukera. Hortaz, argia da desoreka. ■

